

Katalunia

Barkatuko didazue, Josi nahiz Ur, baina nik ez dut jaso *Gue-
reren* irakur-maratoiari buruzko e-postarik. Euskal Idazleen Elkarteko bazkide ez naizelako izanen da, seguru aski; ez galdetu idazle izanik zergatik ez naizen bazkide, neronek ere ez dakit eta. Nire aspaldiko “ezetza garaietatik” zahartzaro aldera berbisitatu beharko dut bekatuak eta kitatzeko, gorde dudana azterna da. Badut gehiago, ez pentsa.

Niri printzipioz ez zait gaizki iruditzen –arrazoia duzu, Ur, kontra-erreformaren kontu horrekin–, baina ez dakit noraino den zilegi Axular gure balore eta sistema moralarekin neurtzea. Zalantzak ditut. Egia da bestalde Axularren euskara zoragarria dela, baina dioena garai hartarako hainbatetan esan izanak unibertsaltasuna kentzen dio, *Kixotea* edo Ausias Marchen lanei ez bezala.

Zergatik ez garen Katalunia? Ai nola esan! Milaka dira arrazioak. Koldo Izagirrek *Lokuzio hiztegiaren* sarreran dioten bezala, behar bada hemengo burgesia, oro har, ez delakoz euskaltzalea izan katalana izan den moduan. Horri eransten baldin badiogu hizkuntzaren egoera soziolinguistikoa, zailtasun objektiboa gazteleratik abiatzen den batendako, duela gutxi arteko batasun eza eta abar, panorama hortxe dago. Gainera, hemengo burgesiari –kontzeptu honek ez dakit balio duen dagoneko– boterean paratu denean, kultura ez zaio gehiegi interesatu, benetako euskal izaerarekin oso ongi ezkontzen ez den zera islatzen ez duelako; izan ere euskal izaera definitzen duen ezaugarri nagusia lana baita, baina lan fisikoa, objektuak sortzearena, eta ez kultura bezalako gauza airezko bat.

Beste nonbait idatzi dut baina PNVri, Iban Zalduak dioten bezala, makina-erraminta interesatzen zaio batez ere eta ez, demagun, liburuak.

Iaz, Frankfurtuko azokan, diru gehien mugitzen duen azoka, Herrialde Katalanak izan ziren gonbidatu (aurrekoan Nazio Aribarrak, alderatzearen



JUANJO OLSAGARRE

APALATEGI

BASTERRVETXE

diot). Zer uste duzue, hori berez etorri zela? Ezta pentsatu ere. Generalitateak bi urtez izan zuen pertsona bat Frankfurturten horrelako nazio txikia gonbidatua izan zedin eta lortu ondoren beste urtebete eman zuen dena antolatzen; seguru aski milaka bazkaritara gonbidatuko zituen kultura eragile deitzen diren horiek (kazetariak, idazleak, kritikoa eta abar), mila elkarrizket

ta egiten zituen, milaka euro joanen ziren kandidatura lortzeko. Inbertsio etekindun horrek harrotasunez beteko zuen Reusko ehun enpresari txikia, baina halaxe beteko zuen Goierriko erraminta enpresaria? Duda.

Hogei urte baino gehiago daraman zuen Gobernuak (neurri batean nire aldarrikapen hau faltsua da, zuk, Ur egiten bazenu bezalaxe, izan ere guk zergak beste toki batean pagatzen ditugunez ez dakit noraino dugun esatera noana esateko eskubidea) Kultura Sailak gutxi egiten du bertako kulturetako bat mundura zabaltzeko. Nola ez da oraindik antolatu Etxepare Institutua? Zer uste duzue *Acantilado* argitaletxean irakurtzen ditugun Europa ekialdeko (Letonia, Polonia, Estonia, Eslovenia...) liburu horiek guztiak ez dutela haien gobernuak emandako itzulpen-argitarapen laguntzarik?

Zergatik ez da goi mailako itzultzaile ikasketak izanik, beste unibertsitate batzuekin akordioak erdietsi euskara-beste hizkuntza baterako itzultzaileak prestatu eta itzulpenak egiten hasteko? Zergatik ez dira atzerriko argitaletxeak halako kongresu batera gonbidatzen hemengo argitaletxeekin harremanetan jarri eta itzulpen-argitarapena errazteko? Zergatik ez da Eusko Jaurlaritza urtean behin edo Madrilerara eta Parisera *erramerijan* abiatzen Euskal Astearen hementzen kulturaren aurkezpena egitera?

Badakit, galdera gehiegi. Baina iruditzen zait kanporako jauzi hori derrigorrezkoa dugula, bestela usteldu egiten gara. Euskal Idazleen Elkartean izena eman behar baldin bada... ■

Beste nonbait idatzi dut baina PNVri, Iban Zalduak dioten bezala, makina-erraminta interesatzen zaio batez ere eta ez, demagun, liburuak